

{ koaderno } **Itzea Urkizu Arsuaga**

Stendhal

Neguak biluztuta ekin zuen, konfinamendua, gure balkoi azpiko zuhaitzak. Adarrak, bere existentziaren lekuko bakar; txori goiztiarrentzat ere, ezkutaileku pobreegia zen artean. Baina joan ziren esnatzerik hotzenak eta, giza-kiok eguneroko bizitzatik desagertu izana nolabait ospatu nahiko balu bezala, arbola bizpahiru egunean jantzi zen galako.

Zuhaitzari begira, haren ondoan eta han pausatzaren diren txoriak entzunez eman dut koarentenaren zati handi bat, balkoian. Hura izan da askatasun idilikoenera gerturatzeko ate ia bakar. Eta, hari hostoak gorri-granaterantz nola, halaxe aldatu zait niri ere gorputza; hazi sabela.

Mundua ia gelditu delako, bai, baina bizitzarik ez, eta zuk bertan-goxo jarraitu duzu: nire barruan haziz eta nire barrua heziz. Gure aire bera arnastea tokatzen zaizunera arte, igeri epelean, nazioarteko pandemia batek gure pribilegioak astindu dizkigula jakin ere egin gabe.

Egia esan, balkoiko aukia ez da erosoena haurdunaren ajeentzat, eskerrak kuxinei. Baina, metro karratu hauek eta bertan irentsitako liburuek askotan heldu didate eskutik, betiko gogoan izango dugun itxialdi honetan.

50 egunean ezinbesteko hiru irtenaldi besterik ez ditut egin etxetik, baina konturatu berri naiz pozik nagoela. Egoerak sekula baino biziago dantzarazi didala irudimena, ameslari izatera behartu; bakarriketek urrea balio dutela gogorarazi. Besterik ezean, balio izan didate, gu biok bat izatetik bi izango garen unera lasai iristeko. Eta, plano idealizatuago batean, baita sarri oro laino mehe batek estaltzen duen bailara hau arnasteko egunarekin fantaseatzeko ere. Eta iritsi da, azkenean.

Agindu digutenean eta –gehienok– agindutako moldeetan abiatu gara, kirolaren eta paseoaren arteko unibertso horretan, nor bere lekuaren bila. Urdu-ri, grinaz baina atezuan, haur sentitu gara berriz. Arnasa libreria eta ohiko gorputz eskemetara buelta; belarra edo hondarra, edo espaloia. Errutinaz desitxuratu genuen altxorra.

Hau guztia datorren “Koaderno”-n nola idatz dezakedan pentsatuz noa maldan gora, nire sasoiarekin gustura, bi hilabeteen buruz errepasatutako bihurgune eta bideak zapaltzen. Barruan dudak hunkidurak eta udaberri berde honek hitzik beharko balute, otu zait hori Xabier Lizardiren poema zatiren bat litzatekeela, gutxienez. Hernio eta haren magala, eskuinean; pare-parean, Txindoki harritzarra, sendo

Hernio eta haren magala, eskuinean;
pare-parean, Txindoki harritzarra, sendo
eta eder. Eta, ezkerrean, gertu, Uzturre,
aspaldiko lagun fidela. Zortea duzu, txiki,
bazter hauetara sortuko zarelako

eta eder. Eta, ezkerrean, gertu, Uzturre, aspaldiko lagun fidela. Zortea duzu, txiki, bazter hauetara sortuko zarelako.

Ez zait sekula ahaztuko Erromako panteoia ezagutu nuen eguna; nola gindoazen kalez kale, plaza batera heldu, eta eraikinak arnasa moztu zidan arte. Gaur paraje hauei begiratzeak negarra eragin didan bezala. Ez, ustez, ez dut Stendhal sindromerik sekula jasan, baina, mugaz jositako askatasun berri honen estastik, nahiko nuke pandemia izatea, eusten gaituen lurrari behingoz eusten ikasteko lezio ere. Akaso, zoriontsu egiten gaituzten gauza txiki horiek hain txiki ez direla sinesten hastekoa. •